

Bidebieta

Auzoak badu zer hobetu

Bidebietako Institutuak "Bidebieten hobeto bizi-tzeko" egitasmoa abian jarri zuen udaberrian. Proiektu honetan Ingu-rumen Kimika Zikloko ikasleek parte hartu du-te eta auzoaren egoera -alde onak eta txarrak, edota gabeziak- aztertu dute. Ikasleok lanaren ondorioak ezagutarazi dituzte. Nolako auzoa dugu?

Kimika Zikloko ikasleek "Bidebieten hobeto bizi-tzeko" egitasmoa zuzendu

Auzoaren gabeziak ikertu dituzte ikasleek

zuten udaberrian eta DBHkoek aurrera eraman zuten. Besteak beste, zarata neurtu zuten eta auzoko bizilagunekin higikortasunaz, udal zerbitzuez edota aisialdiaz mintzatu ziren. Joan den astean, lanaren ondorioak jakinarazi zituzten institutuan bertan. Alde batetik, bizilagunek nabarmendutako alde onak azaldu zituzten ikasleek. Hala, autobusen maiztasuna -10 minuturo lan egunetan- zuzena dela, kirol gune eta parke nahikoa daudela eta auzoko argizta-

pena egokia dela ondorioztatu dute ikasleek, bizilagunekin hitz egin eta gero. Bestalde, eliza ondoko parkea berritzen ari dira eta hau ere beharrezkoa zela azaldu dute auzotarrak.

Dena dela, ikasleek zenbait gabezia ere sumatu dituzte auzoan. Esaterako, ikasleen txostenak aparkaleku gutxi dagoela eta auto ugari espaloian edo gaizki aparkatuta uzten direla dio. Bestalde, espaloiak egoera kaskarrean daudela nabarmendu dute ikasleek eta gazteentzako lokal gehiago behar direla. Bizikleta ere izan dute aztergai ikasleek, eta galdetutako bizilagunen %67k bidegorria egonez gero, bizikleta erabiliko lukeela adierazi du.

Zenbait eskaera

Lanaren ondorioak biltzen dituen txostenean zenbait eskaera ere aurkeztu dituzte ikasleek. Udalari, esaterako, aparkaleku faltari aurre egiteko eta autoen gehiegizko abiadura saihesteko neurriak hartzea, espaloiak eta eskailerak konpontzea eta gazteentzako liburutegia eta beste zenbait lokal jartzea eskatu diote. Bestalde, ikasleen ustez, institutuak berak ingurumen heziketan jardun beharko luke eta ildo honetatik, birziklapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatu behar lituzke.

Bost ikasle Ingalaterran

Institutuaren ekimen honen haritik, eta Donostiako Udal Gazteria Sailaren laguntzaz, Aniuska Santos, Elizabeth Le-ma, Javi Canaves, Markel Figue-roa eta Aratz Pinter ikasle-



Errepresioari buruzko astea

Gure Auzoetako Sareak elkarte-ak antolatuta, errepresioari buruzko astea egiten ari da egu-notan Altzan, Herreran, Larra-txon, Bidebieten eta Pasaiain. Hilaren 28an, larunbata, astea amaitzeko, Bidebietako elizatik abiatuta, mendiri irteera egingo da. Ibilaldian zehar bi hitzaldi emango dira. Nabarmentzekoa da, halaber, 18.00etan kalejira "marxosoak" egingo dela Trin-berpetik Pasai San Pedroraino eta 21.00etan bertso afaria izango dela Pasai San Pedroko Proisan.



Ingalaterran egondako bost ikasleak eta Simon Lizarbe irakaslea.

ak eta Simon Lizarbe irakaslea Ingalaterrako Swattendem herrian izan ziren hamar egunez, uztaila bukaeran. Institutuko gazteek "Euroyouth 2002" izeneko jardunaldietan parte hartu zuten, Ingalaterra, Polonia, Italia, Frantzia, Finlandia, Ukraina eta Alemaniako hainbat ikasleekin batera. Swattendem-en bildutako gazteek ingurumenarekin lotutako hamaika ekimen burutu zituzten. Ingalaterran izandako Simon Lizarbe irakasleak aipatu digunez, bestalde, erakus-keta bat antolatzeko asmoa dute, argazki eta mapa bidez, bidaiaren berri emateko. Bidaiari buruzko informazioa laster izango da institutuaren web orrialdean (www.bidebie-